

Eraman hitz bakoitza dagokion atalera.

Haizea	Izotza	Mendiak	Haranak	Glaziarrek
Harriak	Itsasoak	Hodeiak	Ozeanoak	Izpiak
Elurra	Ozonoa	Ibaiak	Airea	Lurrazala

Geosfera

Hidrosfera

Atmosfera

Galaxia bat

gas-hauts erraldoia da

milioika izar eta nebulosen multzoa da

gas-esfera da



Zeintzuk dira Ilargiaren aldiak?

Ilargiak eragiten duen erakarpen indarraren ondorio diren itsasoaren mailaren ligoera eta jaltsiera

Ilargia Eguzkiaren eta Lurraren artean jartzea eta ondorioz, Ilargiak Eguzkia estaltzea

Lurretik ikusten ditugun ilargiaren zatiak, Eguzkiaren argiaren eraginez. Ilargiak bere ardatzaren inguruan eta Lurraren inguruan egiten dituen biren ondorio dira

Eraman baieztapen bakoitza dagokion laukira.

Haien argiak dirdira egiten du

Arrokaz eta gasez osatzen dira

Argia eta beroa igortzen dituzte

Izar baten inguruan bira egiten dute

Ez dute argi propiorik

Gas-esferak dira

Planetak

Izarrak

Zer da Eguzki-eklipse bat?

Ilargiak eragiten duen erakarpen indarraren ondorio diren itsasoaren mailaren igoera eta jaitsiera

Lurretik ikusten ditugun ilargiaren zatiak, Eguzkiaren argiaren eraginez. Ilargiak bere ardatzaren inguruan eta Lurraren inguruan egiten dituen biren ondorio dira

Ilargia Eguzkiaren eta Lurraren artean jartzea eta ondorioz, Ilargiak Eguzkia estaltzea

Zer dira mareak?

Ilargiak eragiten duen erakarpen indarraren ondorio diren itsasoaren mailaren igoera eta jaitsiera

Ilargia Eguzkiaren eta Lurraren artean jartzea eta ondorioz, Ilargiak Eguzkia estaltzea

Lurretik ikusten ditugun ilargiaren zatiak, Eguzkiaren argiaren eraginez. Ilargiak bere ardatzaren inguruan eta Lurraren inguruan egiten dituen biren ondorio dira

Lotu termino bakoitza bere esanahiarekin.

ekuatorea

latitudea

longitudea

meridianoak

paraleloak

Greenwich-eko meridianoa

Lur-globoetan polotik polora marraztutako zirkunferentzierdi berdinak dira

Lurrazaleko puntu batetik zero meridianoarekiko distantzia da

Ekuatorearekiko zirkunferentzia paraleloak dira eta Lurraren gainazaleko puntu baten latitudea – ekuatorearekiko distantzia– markatzen dute

Lurrazaleko puntu batetik ekuatorearekiko distantzia da

0 meridianoa da

Lurraren alde zabalenetik igarotzen den irudizko lerroa da eta Lurra bitan banatzen du: Ipar hemisferioa eta Hego hemisferioa.